

Durangoko 20. Euskal Dendak egundoko arrakastarekin itxi zituen ateak, 23.065 bisitari izan ditu

Salmentak ere oso onak izan dira

Durangoko 20. Euskal Dendak egundoko arrakastarekin itxi zituen ateak atzo. Orokorrean 23.065 lagun pasatu dira azokatik, horrek esan nahi du egunaren batezbestekoa 4.613 bisitari izan dituela Euskal Dendak eta bildutako jendetzak aurreikusitakoa gainditu zuela. Salmentei begira, hauek ere oso onak izan dira.

Euskal Denda antolatzen duen, Euskal Herriko Artisauen Elkarteak, Arbasok, oso pozik ageri zen atzo, ekimen hau amaitzean. “Ez genituen espero lortutako zenbakiak. Hasi ginenean 1995ean, ez genukeen asmatu 20.000 bisitari izango genituenik, eta aurten 23.065 izan dira gurekin. Guztiei eskerrak eman nahi dizkiet guregana hurbiltzea”, esan zuen Arbasoko presidenteak, Bernat Vidalek.

Arbasoren ustez “aurtengo Euskal Dendak jarrera oso ona eduki du, agian publikoen leialtasunari esker eta hori aipatu behar dugu, gero eta jente kontzietzatutagoa datorkigu”, Bernat Vidalen esanetan.

Euskal Dendaren helburu nagusia artisautza tradizionala zein garaikidea bultzatzea eta merkaturatzea da, beti ere, Euskal Herrian egindakoaren ziguiluz. Profesional hauek biziraungo badute, behar-beharrezkoa da, krisi garaian, artisauen lana bertatik bertara ikusaraztea.

Bisitariak konprobatu du antzinako lanbideak oraindik bizirik daudela eta, era berean, artisau produktuak onak direla. Halaber, gure herriaren balio kulturak bultzatzeko eta garapen ekonomikoa sustatzeko modu bat ere bada, eta galtzen doazen ogibideak bizi-iraunarazteko.

Lorea Madina Bilbao
Komunikazio arduraduna
prentsa@arbaso.com
607 86 32 24